



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## PRENTSA OHARRA

# HAMARKADA HONETAKO BIDE-POLITIKA GIDATUKO DAUEN BIZKAIKO ERREPIDEEN FORU-ARAUAREN PROIEKTUAK ALDAKETA BARIK IGARO DAU BATZORDEKO IZAPIDEA

- Testuak 1999an onartutako Foru Arauaren eta ondoren 2011n egindako “garrantzi bereziko” aldaketaren berrikuspena dakar, mobikortasun jasangarriaren kontzeptua eta azpiegituren tratamendu integratua barru hartzen ditualako.
- Batzar Nagusietako Azpiegitura eta Lurralde Garapenerako Batzordeak atzera bota ditu Talde Berezia-PP Bizkaiak aurkeztutako 49 zuzenketa-eskeak (bat Osokoa). Talde hori izan zan Aldundiak aurkeztutako testuan aldaketak erregistrau ebazan bakarra.
- Euzko abertzaleek, Euskal Sozialistek eta EH Bilduk, “adostasun politikorik handiena” eta garraioaren sektoreak eta gizarte-eragileek ibilgailu astunentzako ordainketa-ereduaren diseinuan parte hartzea bilatzeko arauz besteko proposamen bat babestu dabe. Eredu horren tramitazioak bere bide propioa izango dau.

(Bilbon, 2021eko irailaren 16an). Bizkaiko Errepideen ganeko Foru Arauaren proiektuak azken aurreko izapidea igaro dau gaur Batzar Nagusietan, osoko bilkuran behin betiko onartu aurretik. Bizkaiko Batzar Nagusiek, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek osatzen daben gehiengoari esker, ontzat emon ditue Aldundiak aurkeztutako testuaren 67 artikulua. Gaur, Azpiegitura eta Lurralde Garapenerako Batzordean, Foru Gobernua eusten daben taldeek atzera bota ditue Talde Berezia-PP Bizkaia taldeak aurkeztutako zuzenketa-eske guztiak; izan be, bagilaren 22an Gobernu Kontsejuan onartutako dokumentuaren aurreko zuzenketa-kaz parte hartu dauen alderdi bakarra izan da.

Arauzko testuak errepideen plangintzagaz eta ustiapenagaz erlasionautako alderdiak jorratzen ditu batez be. Bizkaiko errepide-sarearen plangintzari jagokonez, testuak errepideen hierarkiazino barria eskaintzen dau, eta daborduko jasota dagozan finantzazinarako alderdiak sartzen ditu, bai aurrekontuen bai erabiltzaileen bidez (bidesariak). Modu berean, Aldundiak aurreratu ebanez, araua bat dator Batzar Nagusietako Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Batzordeak 2019ko urtarrilaren 11n onartu eban Bizkaiko Errepideen LAP egiteko jarraibide eta erespede



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

orokorrakaz. Eta, azkenik, arau-proiektuak honeek be barne hartzen ditu: azken urteetan gauzatutako obra-mota barriak, errepide-mota barriak, etorkizunean garatu daitekezan teknologia barriak eta ingurumen- eta gizarte-arloko sentsibilitate barriak.

Ustiapenari jagokonez, arauzko proiektuak alderdi honeekaz erlazionautako alderdiak eguneratzen ditu: mugak, baimenak, urietako tartekak eta zeharbideak, titulartasuna udalerriei transferidutea eta errepideari eragindako kalteen eta zerbitzuaren eraginaren ondoriozko erantzukizuna. Atal hori irisgarritasun jasangarria bultzatzeko jentearantzako zerbitzu bat eskaintzeagaz erlazionauta dago.

## BIDESARIAK

Talde Berezia-PP Bizkaiak, aldaketak proponidu dituan alderdi bakarrak, aurkeztutako zuzenketa-eskeen eztabaida bateratuan, batzarretako taldeek arauzko proiektuaren ganean dituen eretxiak azaldu ditue. Talde horrek aurkeztutako 49 zuzenketa-eskeen artean, Osoko aldaketa bat egoan, Eduardo Andrade ahaldunaren arabera, arau hori geldiarazoten saiatzen dana, izan be, haren ustetan, arauak “bidesariak ezarri gura ditu Bizkaiko errepideak finantzetako modu gisa”. Bere berbetan, barritasun moduan sartu da gai hori 26. artikuluan, Gobernu zentralagaz lerrokatuta, autobia guztietan ordainketa-sistema bat ezarteko. Talde Bereziak artikulua hori kentzea proponidu dau, uste dabelako ezin dala onartu “birritan ordaintzea”, “daborduko ordainduta dagozan” errepide batzuegaitik.

Talde Bereziaren Osoko zuzenketa-eskeak ez dau ezelango babesik jaso Batzar Nagusietan. Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek kontra bozkatu dabe, eta Elkarrekin Bizkaia eta EH Bildu abstenidu egin dira. Ezetza erabatekoa izan da bidesarien ganeko 26. artikulua kentzeko egindako zuzenketa-eskean. Halanda be, oposizioa ados jarri da, “garrantzi handiko” arau baten eraginpean egon daitekezan eragileen gardentasuna eta parte-hartzea indartzeari jagokonez, eta herritarren alegazio-aldia luzatzea be aurreikusi da, Elkarrekin Bizkaiak proponidu dauen moduan. Irene Edesa jeltzaleak gogorarazo dauenez, erakundeek daborduko parte hartzeko bideak ezarrita ditue.

Elkarrekin Bizkaiak eta EH Bilduk ez dabe zuzenketa-eskerik aurkeztu testuaren aurrean, eta errepideetako bidesarien sistema kentzearen kontra agertu dira. Alderdi moreak, Eva Maria Caborneroren bitartez, ordainketa-sistema “proportzionalagoa eta justuagoa” izatea eta “akordio sozial eta politikoa” bilatzea eskatu dau, eta “gehien kutsatzen daben” ibilgailuei tarifa altuagoak apliketearen alde be agertu da. Bidesariak “erabilgarritasuna” daukie, baina “ez dabe dirua biltzeko balio behar”, ganeratu dau Emilio Lobato bere kideak.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Euzko Abertzaleak taldearentzat, foru arauak “garrantzi berezia” dauka, eta ez dau bidesarien politika aldatzen, 2011n onartutako arauagaz alderatuta. “Ez ditu bidesariak arautzen, Bizkaiko errepideen plangintza, proiektzioa, aldaketea, eraikuntza, kontserbazioa, finantzaketea, erabilera eta ustiapena baino”, erantzun dau Edesak, eta “eztabaidea nahasteagaitik” eta “jasangarria ez dan” sistema bat sustatzeagaitik kritikau dau PP.

Bidesariak kentzeko popularrek egindako proposamena sozialistek be kritikau dabe. Planteamentu “oportunistea” da, eta ez dator bat Rajoyren Gobernuak errepideen erabilera ordaintzearen alde erakutsi eban asmoagaz, Víctor Trimiñok gogorarazo deusonez.

## IBILGAILU ASTUNAK TXORIERRIN

Gaur eztabaidatutako errepideen ganeko foru arauak ez deutso euskarririk emongo ibilgailu astunen kasuan erabileraren ondoriozko ordainketan oinarritutako kudeaketa eredu barriari. Horrek “beste izapide bat” dakar Edesaren berbetan. Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek euren jarrera argi itxi gura izan dabe Arauz besteko proposamen bat aurkeztuta. Horren bidez, Batzar Nagusiek eredu hori “apurka” ezarri daiala eskatzen deutse Aldundiari, “ahalik eta adostasun politiko handiena eta errepideko garraioaren sektorearen lankidetzeta bilatuz”, holan, “Bizkaiko Batzar Nagusiek 2019ko urtarrilean emondako aginduari erantzuna emoteko eta ibilgailu astunen trafikoaren egungo disfunkzioak konpontzeko, ipar-hego ardatzean (N-240 Arratia eta BI-625 Aiala-Nerbioi) eta ekialde-mendebaldekoan (N-636 Kanpazar eta N-637 Txorierri)”.

Proposamena egin daben taldeek EH Bilduren zuzenketa-eske bat onartu dabe, eredu barriak “egoera barriagaz bat datoza tarifikak” izan daizan, “ordainketa puntuak handituko direlako”, Raul Mendez batzordekideak ohartarazo dauenez. Koalitzino abertzaleak, ereduaren eztabaidan gizarteko kolektiboen parte-hartzea sartzea lortu dau, Talde Berezia-PPB taldearen eta Elkarrekin Bizkaiaren abstentzinoa izan dauen testuan.

Beste alde batetik, koalitzino abertzaleak, Arauz besteko proposamen baten bidez, Lezama Biziriketik egindako eskaerak ekarri ditu Batzar Nagusietara, Aldundiak txosten bat egin daian Txorierriko korridorean abiadura-mugea murrizteko eta ibilgailu astunen trafikoan oreka handiagoa lortzeko soluzino bat bilatzeko ahalmen handiko errepideetan. Jeltzaleek, sozialistek eta popularrek atzera bota dabe ekimena. “Ez da beharrezkoa testuinguru barri honetan”, esan dau Edesak, izan be, Batzar Nagusietan bagilaren 14an iragarritako planteamentua orokorra da eta “oso ondorio positiboak” izango ditu errepide horretan eta Bizkaiko beste batzuetan.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## BIZKAIA PELOTALEKUA ETA UHOLDEAK ASUAN

Bileran Azpiegituretako eta Lurralde Garapenerako Sailaren eskumen-arloakaz erlazionautako beste gai batzuk be jorratu dira. Holan, Bizkaia pelotalekuaren balorazio ekonomiko orokorra eskatu dau Elkarrekin Bizkaiak. Zenbakitan sartu barik, balantzea “oso positiboa” dala esan dau Imanol Pradales arlo horretako arduradunak. Azpiegitura hori lurraldeko kirolaren “zutabe” bat da, kirolari lotutako zerbitzuez gain, beste zerbitzu batzuk barru hartzen dituan eredu “berezi” bati esker. Eva Maria Cabornero talde moreko batzordekideak esan dauenez, bere alderdiari “ez jakoz kontuak urtetan”, izan be, 2019an Azpiegiturak erakundeak “158.917 euro” sartu ebazan txarteldegi bidez, “bakarrik” urte horretako buruz buruko finalean 244.000 euro batu ebazanean. Pradalesek “kontratua irakurtzera” konbidau dau, izan be, Foru Aldundiak diru-sarrereren ehuneko bat baino ez dau jasoten.

Modu berean, Asuako (Erandio) BI-735 errepidean uholdeak saihesteko bere sailak sortutako proiektuaren ganeko informazioa eskatu deutso EH Bilduk diputatuari. Foru Aldundiak Erandioko Udalaren “onespena” jaso dau Asua ibaitik gertu dagon “500 metroko” errepide tarte batean errepidearen sestra “metro bat” igoteko. Pradalesek baieztu dauenez, une honetan eraikuntza-plan bat idazten ari dira Makro merkataritza-guneko sarbideetatik aparte beste aukera bat bilatzeko; izan be, lursail horreek, bidea altxetako beharrezkoa izango dan errepide-mozketa baten eragin handiagoa jasango dabe. Obra “urtebetean” lizitetea aurreikusten dabe, “750.000 euroko” aurrekontuagaz.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## NOTA DE PRENSA

# EL PROYECTO DE NORMA FORAL DE CARRETERAS DE BIZKAIA QUE GUIARÁ LA POLÍTICA VIARIA DE ESTA DÉCADA, PASA SIN CAMBIOS EL TRÁMITE POR COMISIÓN

- El texto supone una revisión de “especial trascendencia” de la Norma Foral aprobada en 1999 y de su modificación posterior en 2011, al incorporar el concepto de movilidad sostenible y el tratamiento integrado de las infraestructuras.
- La comisión de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de las Juntas Generales rechaza las 49 enmiendas (una a la Totalidad) presentadas por el grupo Mixto-PP Bizkaia, único grupo juntero que registró cambios al texto presentado por la Diputación.
- Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y EH Bildu apoyan una proposición no de norma para que se busque el “máximo consenso político” y la participación del sector del transporte y de agentes sociales, en el diseño del modelo de pago para vehículos pesados, cuya tramitación tendrá su propia vía.

(Bilbao, a 16 de septiembre de 2021). El proyecto de Norma Foral de Carreteras de Bizkaia ha pasado hoy el penúltimo trámite en las Juntas Generales antes de que se apruebe definitivamente en pleno. La Cámara vizcaína, gracias a la mayoría que suman los grupos junteros Nacionalistas Vascos y Socialistas vascos, ha dado el visto bueno a los 67 artículos del texto presentado por la Diputación. Hoy los grupos que sustentan al Gobierno foral han rechazado en la comisión de Infraestructuras y Desarrollo Territorial todas las enmiendas presentadas por el grupo Mixto-PP Bizkaia, única formación que ha acudido con correcciones al documento que fue aprobado el 22 de junio en el Consejo de Gobierno.

El texto normativo aborda fundamentalmente aspectos relacionados con la planificación y la explotación de las carreteras. Por lo que respecta a la planificación de la red viaria vizcaína, el texto ofrece una nueva jerarquización de las carreteras e introduce aspectos de financiación de las mismas que ya están incorporados, ya sea vía presupuestos o vía usuarios (peajes). Asimismo, la norma se adapta, según avanzó la Diputación, a las directrices y criterios generales para la elaboración del PTS de Carreteras de Bizkaia aprobado por otra Comisión de Desarrollo Económico y Territorial de las Juntas Generales, el 11 de enero de 2019. Y, por último, el proyecto



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

normativo incorpora también los nuevos tipos de obras ejecutados en los últimos años, los nuevos tipos de carretera, las nuevas tecnologías de previsible desarrollo futuro y las nuevas sensibilidades de carácter medioambiental y social.

En cuanto a la explotación, el proyecto de norma actualiza los aspectos relacionados con las limitaciones, autorizaciones, tramos urbanos y travesías, trasferencias de titularidad a los municipios y responsabilidad derivada de daños a la carretera y afección al servicio. Este apartado está relacionado con la prestación de un servicio al público para favorecer una accesibilidad sostenible.

## PEAJES

Los grupos junteros han expresado sus puntos de vista sobre el proyecto de norma en el debate conjunto de las distintas enmiendas presentadas por el Grupo Mixto PP Bizkaia, la única formación que ha registrado cambios. Entre las 49 enmiendas presentadas por este grupo se encontraba una enmienda a la Totalidad que, según su apoderado Eduardo Andrade, trata de poner freno a esta norma que incluye, según él, “la implantación de peajes como forma de financiación de las carreteras de Bizkaia”. Un asunto que se incorpora como novedad, según él, en la redacción del artículo 26, alineándose así con el Gobierno central para establecer un sistema de pago en todas las autovías. El grupo Mixto ha planteado la retirada de este artículo ya que creen que “no se puede tolerar que se pague dos veces” por unas carreteras que “ya están pagadas”.

La enmienda a la Totalidad del grupo Mixto no ha recibido ningún apoyo parlamentario. Se ha rechazado con el voto contrario de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, y la abstención de Elkarrekin Bizkaia y EH Bildu. El rechazo ha sido completo entre los grupos en la enmienda para suprimir el artículo 26 que hacía referencia a los peajes. La oposición se ha puesto de acuerdo, sin embargo, en que se refuerce la transparencia y la participación de los agentes que puedan verse afectados por una norma de “gran importancia”, contemplándose incluso una extensión del periodo de alegaciones de la ciudadanía, según proponía Elkarrekin Bizkaia. La jeltzale Irene Edesa ha recordado que las instituciones establecen ya vías de participación.

Tanto Elkarrekin Bizkaia como EH Bildu, que no han enmendado el texto, han expresado su rechazo a eliminar el sistema de peajes de las carreteras. La formación morada, a través de su representante Eva María Cabornero, ha pedido que el sistema de pago sea “más proporcional y justo” y que se busque “un acuerdo social y político”, incluso mostrándose partidaria de aplicar tarifas más elevadas a aquellos vehículos “que más contaminen”. Los peajes tienen una “utilidad”, pero esta “no debe ser



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

recaudatoria”, ha añadido después su compañero Emilio Lobato.

Para Nacionalistas Vascos la norma foral tiene “especial transcendencia” y no cambia la política de peajes con respecto a la norma aprobada en 2011. “No regula los peajes, sino la planificación, proyección, modificación, construcción, conservación, financiación, uso y explotación de las carreteras de Bizkaia”, ha respondido Edesa, quien ha criticado al PP por “confundir el debate” y por fomentar un sistema que “no es sostenible”.

La crítica a la propuesta de los populares de eliminar los peajes ha llegado también desde las filas socialistas. Es un planteamiento “oportunista”, que contrasta con la intención del Gobierno de Rajoy, que ya abogó por el pago por uso de las carreteras, según le ha recordado Víctor Trimiño.

## VEHÍCULOS PESADOS EN EL TXORIERRI

La norma foral de carreteras debatida hoy no dará soporte al nuevo modelo de gestión basado en la implantación del pago por uso para los vehículos pesados, algo que lleva “otra tramitación” según Edesa. Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han querido dejar clara su postura con la presentación de una proposición no de norma. A través de ella, la Cámara vizcaína insta a la Diputación, a que implante este modelo “de manera progresiva”, buscando “el máximo consenso político y la colaboración del sector del transporte por carretera”, de tal manera que permita, “tanto dar respuesta al mandato de las Juntas Generales de Bizkaia de enero de 2019 como solucionar las disfunciones actuales del tráfico de vehículos pesados, en los ejes norte-sur (N-240 Arratia y BI-625 Aiala-Nerbioi) y este-oeste (N-636 Kanpazar y N-637 Txorierri) de Bizkaia.”.

Los grupos proponentes han aceptado una enmienda de adición de EH Bildu para que el nuevo modelo incluya “unas tarifas más acordes a la nueva situación”, debido a que “se incrementarán los puntos de pago”, ha advertido su apoderado Raúl Méndez. La coalición abertzale ha logrado introducir en el texto final, que ha obtenido el rechazo del grupo Mixto-PPB y la abstención de Elkarrekin Bizkaia, a que participen también en el debate los “colectivos sociales”.

Por otro lado, la coalición abertzale, a través de una proposición no de norma, ha traído a la Cámara las demandas de Lezama Bizirik para que la Diputación emitiera un informe con el propósito de reducir la limitación de velocidad en el corredor del Txorierri y buscar una solución para lograr un mayor equilibrio en el tráfico de vehículos pesados en las vías de gran capacidad. En esta ocasión, ka iniciativa ha sido rechazada por jeltzales, socialistas y populares. “No es necesaria en este nuevo



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

contexto”, ha dicho Edesa, puesto que el planteamiento de la Diputación anunciado en Juntas el 14 de junio, es general y, de por sí, tendrá efectos “muy positivos” en esta vía y en otras de Bizkaia.

## FRONTÓN DE BIZKAIA E INUNDACIONES EN ASUA

En la sesión se han tratado otros asuntos ligados a materias competenciales del departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial. Así, Elkarrekin Bizkaia ha pedido una valoración económica general del Frontón Bizkaia. Sin entrar en cifras, el responsable de esta área, Imanol Pradales, ha dicho que el balance es “muy positivo”. Esta infraestructura es un “pilar” del deporte del territorio gracias a un modelo “singular” que incorpora otros servicios, además de los ligados al deporte. La apoderada de la formación morada Eva María Cabornero ha dicho que a su formación, sin embargo, “no le salen las cuentas” ya que, en 2019, Azpiegiturak ingresó “158.917 euros” por taquilla, cuando “solo” en la final del manomanista de ese año la recaudación alcanzó los “244.000 euros”. Pradales le ha invitado “a leerse el contrato”, ya que la sociedad foral recibe solo un porcentaje de los ingresos.

Asimismo, EH Bildu ha pedido al diputado información sobre el proyecto ideado por su departamento de cara a evitar inundaciones en la BI-735 en Asua (Erandio). La Diputación ha recibido el “beneplácito” del Ayuntamiento de Erandio para elevar “un metro” la rasante de la carretera en un tramo de “500 metros” cerca del río Asua. Pradales ha confirmado que, en estos momentos, se está redactando un plan de construcción para buscar una alternativa a los accesos del centro comercial Makro, terrenos que se verán más afectados por un corte de carretera que será necesario llevar a cabo para levantar el vial. Esperan licitar la obra “en un año” con un presupuesto de “750.000 euros”.